<table>
<tr><td colspan="2" align="center"><u>OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO</u><br><br><u>2024KO OTSAILAREN 26A / 26 DE FEBRERO DE 2024</u></td></tr>
<tr><td colspan="2" align="center">BERTARATUAK / ASISTENTES</td></tr>
<tr><td align="center"><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna</td><td><u>ALKATEA / ALCALDE</u><br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea<br>Dña. Vanesa Hortas Mojón andrea<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Sofía Archeli Mesonero andrea<br>D. Andoni Zabala Atristain jauna<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea<br>Dña. Arantzazu Mata Egiguren andrea<br>Dña. Nerea Barruetabeña Garate andrea<br>D. Julián Manuel Díaz Gutiérrez jauna<br>Dña. Hiart Cabrera Ansola andrea<br>Dña. Leire Alberdi Arriola andrea<br>Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa andrea<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea<br>Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea<br>Dña. María Mercedes Garate Larrañaga andrea<br>D. Jon Pérez Illana jauna<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti jauna<br>Dña. María Isabel Fernández Pejenaute andrea</td></tr>
</table>

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20240226&instante=47

Eibarko udaletxearen Batzar Aretoan, bi mila eta hogeita lauko otsailaren hogeita seian, arratsaldeko zazpiak izanik, Udalbatza bildu zen ohiko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, a las diecinueve horas del día veintiséis de febrero de dos mil veinticuatro, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, formado por las señoras y señores anteriormente mencionados/as.

**Alkate-udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta honako gai-zerrenda hau aztertu da:

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. 2024ko urtarrilaren 29ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

**1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de 29 de enero de 2024.**

2024ko urtarrilaren 29ko bilkurari dagokion akta-zirriborroa bozkatu ondoren, onartu egin da eta aktatzat hartu.

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 29 de enero de 2024, queda aprobado, siendo elevada a acta.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - Eibarko EH Bildu, (5), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EH Bildu (5), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

**2. Ainhoa Ormazabal Igoa andreak zinegotzi kargua hartuko du.**

Idazkari jaunak azaldu du Udal honetako Osoko Bilkurak 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran jakin zuela Eibarko Euskal Herria Bildu udal-taldeko Gorka Errasti Bernedo jaunak zinegotzi karguari bere borondatez uko egin ziola.

Azaldu du Hauteskunde Batzorde Zentralak Ainhoa Ormazabal Igoa andrearen egiaztagutuna bidali duela, Euskal Herria Bilduk 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-hauteskundeetara aurkeztutako zerrendaren 8. postuan zegoena. Aurretik, hautagai-zerrenda horretako 7. postuan zegoen pertsonak uko egin zion kargua betetzeari.

Idazkaritza honetan jasotako egiaztagutuna edo kredentziala egiaztatu ondoren, Ormazabal Igoa andreak bete du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitako ondasun- eta jardueren-aitorpenak aurkezteko betebeharra.

Ondoren, karguaz jabetzen den unean, bere karguaren erabateko izaera eskuratzeko, Konstituzioari men egingo diola zin egin edo promes egin behar du, bai eta kasuan kasuko lege edo

**2. Toma de posesión de Doña. Ainhoa Ormazabal Igoa como concejala.**

El Sr. Secretario expone que el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 21 de diciembre de 2023, tomó conocimiento de la renuncia voluntaria del integrante del grupo municipal Eibarko Euskal Herria Bildu, D. Gorka Errasti Bernedo, al cargo de Concejal.

Informa que la Junta Electoral Central ha remitido la credencial de Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa, número 8 de la lista presentada por Euskal Herria Bildu a las elecciones municipales celebradas el 28 de mayo de 2023. Previamente, la persona que ocupaba el puesto número 7 de dicha candidatura renunció a ocupar el cargo.

Una vez comprobada la credencial recibida en esta Secretaría, la Sra. Ormazabal Igoa ha cumplido con la obligación de presentar las declaraciones de bienes y de actividades, previstas en el artículo 75.7 de la Ley de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local

A continuación, en el momento de tomar posesión, y para adquirir la plena condición de su cargo, se debe jurar o prometer acatamiento a la Constitución, así como cumplimentar los demás

erregelamenduetan aurreikusitako gainerako baldintzak beteko dituela ere.

requisitos previstos en las leyes o reglamentos respectivos.

Karguaz jabetzeko, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak jasotzen duen formula erabiliko du, zin egitea edo promes egitea.

Para la toma de posesión se utilizará la fórmula de juramento o promesa recogida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril

**Alkate-udalburuak** izendatuko du Ainhoa Ormazabal Igoa andrea; eta, zutik jarrita, karguari zin egin edo promes egingo dio.

El **Sr. Alcalde-Presidente** nombrará a Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa, quien puesta en pie prestará juramento o promesa de su cargo.

**Allkate-udalburu jaunak** galdera hau egin du:

El **Sr. Alcalde-Presidente** realiza la siguiente pregunta:

"Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten al duzu edo hitz ematen al duzu Eibarko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzo beteko dituzula, Erregearekiko leialtasunez, eta, Estatuaren funtsezko arau gisa, Konstituzioa gorde eta betearaziko duzula?"

*"¿Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Concejalal del Ayuntamiento de Eibar, con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado?"*

Ormazabal Igoa andreak hauxe erantzun du: "*Sí, obligada por la ley."*

La **Sra. Ormazabal Igoa** responde: *"Bai, legeak behartuta"*.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluak eta Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikuluak eskatutako betekizunak bete ondoren, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. artikuluak aurreikusitako formularen arabera promes egin ondoren, Ainhoa Ormazabal Igoa andrea Eibarko Udaleko zinegotzi karguaren jabe bilakatu da.

Una vez cumplidas las obligaciones exigidas por los artículos 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local y 108.8 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, y habiendo prestado promesa de acuerdo con la fórmula prevista en el artículo 1 del Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, Dña. Ainhoa Ormazabal Igoa ha adquirido la plena condición de Concejala del Ayuntamiento de Eibar.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. EUDELen Erakunde Adierazpenaren berri ematea, 2024ko martxoaren 8a dela-eta.**

**3. Dación de cuentas de la Declaración Institucional de EUDEL con motivo del 8 de marzo de 2024.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

En este día internacional de las mujeres, es de justicia que nuestra sociedad reconozca la deuda con las generaciones de mujeres que han contribuido a las transformaciones feministas a lo largo de la historia, tanto desde sus resistencias contra los mandatos y estereotipos de género, como desde las luchas colectivas del movimiento feminista.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

El sistema patriarcal ha invisibilizado las ideas y negado el activismo político y social de las mujeres, silenciando sus reivindicaciones y borrando las evidencias de sus logros en favor de sus comunidades. Además, se han ocultado sistemáticamente las aportaciones de las mujeres de distintos orígenes y tradiciones culturales, racializadas, lesbianas, con diversidad funcional y de las mujeres mayores

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekarietatea eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

En concreto, ponemos el foco en la generación actual de mujeres mayores, la cual es sistemáticamente estereotipada y discriminada, convirtiéndola en socialmente irrelevante. Además, esta invisibilidad está ocultando situaciones de mayor vulnerabilidad como la precariedad y empobrecimiento, la soledad no deseada, problemas de salud y formas de violencia machista.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

El proceso de empoderamiento de las mujeres requiere reconocerse como herederas de una tradición teórica, política y filosófica feminista. Por ello, poner en valor los saberes y la visión crítica de la realidad que tienen las mujeres mayores, contribuye al ejercicio de reparación de la memoria histórica. Dicha reparación nos permite reconocer a nuestras predecesoras y garantizar la transmisión intergeneracional que conecte pasado, presente y futuro.

Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Este 8 de marzo, con motivo del día internacional de las mujeres, desde las diferentes instituciones debemos promover todas las estrategias y mecanismos a nuestro alcance para visibilizar la genealogía feminista y reparar los olvidos de la historia con las mujeres.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura

Los Ayuntamientos, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, tenemos la

dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeko eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, .Eibarko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen **memoria historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetaraino.

- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea.

- Ezagutzak eta esperientziak trukatzeko **belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-**guneak babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.

- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea——ikuspegi intersekzionalaz, bereziki, adineko

oportunidad y responsabilidad de rescatar, en el ámbito local, la historia de generaciones de mujeres y de reconocer el valor que las mujeres y las luchas feministas han aportado a la vida de los municipios, empezando por la generación actual de mujeres mayores. Por tanto, el Ayuntamiento de Eibar se compromete a:

- Desarrollar proyectos que **reconozcan y rescaten la memoria** histórica local de las mujeres para crear genealogía, desde las referentes próximas, hasta los grupos feministas.

- Contribuir al **reconocimiento de los movimientos feminista**s que han articulado la resistencia y respuesta al sistema en cada momento histórico, en las distintas tradiciones y entornos culturales.

- Apoyar los espacios de **encuentro y diálogo intergeneracional** para intercambio de conocimientos y experiencias, como espacios de empoderamiento feminista y alianza de mujeres de diferentes edades y condiciones.

- Promover la **visibilidad social de las mujeres, especialmente de las mujeres mayores** en toda su

emakumeena, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz , gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.

diversidad, y combatir el edadismo, transformando la imagen que predomina en la sociedad sobre la vejez de las mujeres, basada en la edad y en los estereotipos con enfoque interseccional.

- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman- eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alargunentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak** ezagutaraztea.

- Impulsar proyectos que pongan especial atención en las experiencias y en las formas de **relación y participación** de las mujeres mayores en el ámbito público, en toda su diversidad.
- Apoyar ante las instituciones competentes la demanda de ingresos y pensiones que garanticen el **empoderamiento económico a las mujeres mayores** de rentas más bajas, especialmente a las viudas, y que se estudien y articulen medidas de compensación.
- Dar a conocer las **ayudas y prestaciones económicas** existentes para las mujeres mayores, especialmente las viudas.

- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.

- Reforzar los **servicios públicos de apoyo y cuidados** de competencia municipal en sus localidades, que permitan a las mujeres mayores mantener su autonomía y activismo.

- Adineko emakumeen aurkako **indarkeria matxistaren eragina** eta hura gauzatzeko **moduak ikertzea** eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.

- Investigar, profundizar en el conocimiento de la **incidencia y las formas** en las que se ejerce la **violencia machista** contra las mujeres mayores, a fin de articular respuestas adecuadas a su realidad y necesidades.

- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, udalerriak emakumeen tokiko **memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren **ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea.**

- Difundir y dar visibilidad a través de la red BERDINSAREA, con la colaboración de EUDEL y Emakunde, a las iniciativas que los municipios están poniendo en marcha **para rescatar la memoria local de las mujeres.**

**4. Alkatetzaren ebazpenen berri ematea.**

**4. Dación de cuentas de resoluciones de Alcaldía.**

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

**5. Eibarko Udala *Eibarko Tokiko Energia Komunitatea-TEK Eibar* elkarteari atxikitzeko akordioa aldatzea. ID0001-000143/2024**

**5. Modificación del acuerdo de adhesión del Ayuntamiento de Eibar a la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar. ID0001-000143/2024**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

VOTOS A FAVOR: 14 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 7 - Eibarko EH Bildu, (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EH Bildu (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

Legez, gehiengo osoa eskuratu duenez, onartu egin da.

Alcanzada mayoría absoluta legal, queda aprobado.

2024ko otsailaren 12an, Ander Aranzadi Ormaechea jaunak, Eibarko Tokiko Energia Komunitatea-TEK Eibarko Elkarteko idazkari den aldetik, Udalak 2023ko maiatzaren 9an hartutako erabakiaren 7. puntua aldatzeko eskaera egin zuen, Eibarko Udala elkarte horri atxikitzeko eta zenbait udal eraikinetako estalkien erabilera lagatzeari buruzko puntua.

El 12 de febrero de 2024 se presenta por D. Ander Aranzadi Ormaechea, en su condición de Secretario de la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar, solicitud de modificación del punto 7 del acuerdo de Pleno municipal de 9 de mayo de 2023, relativo a la adhesión del Ayuntamiento de Eibar a dicha Asociación y la cesión de uso del cubiertas de varios edificios municipales.

Ingurumen teknikariak 2024ko urtarrilaren 16an egindako txostena aztertu da, non aldaketa hori bidezkoa kontsideratzen duen.

Visto el informe emitido por la Técnica de Medio Ambiente en fecha 16 de enero de 2024, considerando procedente tal modificación.

Ikusita baita Idazkaritzak 2024ko otsailaren 14an egindako txostena,

Visto asimismo el informe de Secretaría, emitido el 14 de febrero de 2024.

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko otsailaren 19ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 19 de febrero de 2024.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** Eibarko Udala Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar Elkartean sartzeko akordioaren 7. puntua aldatzea. Honela geratuko da idatzita:

***"Zazpigarrena.- Iraupena***

*Udalaren estalkiak gehienez ere 15 urterako lagako dira, eta lagapena 25 urtera luza daiteke.*

*Eibarko Udala TEK Elkartean bazkide sustatzaile gisa integratzeak, bazkideen balizko defizitak estaltzen ez dituen kuotak bere gain hartuz, 8 urteko iraupena izango du gehienez.*

*Era berean, akordioa aldez aurretik iraungi daiteke, inguruabar hauek direla medio:*

- *Alde biak ados jartzea.*
- *Elkarteak ez betetzea eratzeko unean zituen helburuak.*
- *Akordio honetan ezarritako edozein debeku edo betebehar ez betetzea.*
- *Elkartea desegitea edo jarduteko duen gaitasuna galtzea, bai eta elkartearen eraketa-jardueraren*

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Modificar el punto 7 del acuerdo de integración del Ayuntamiento de Eibar en la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea – TEK Eibar, quedando redactado en los siguientes términos:

*"**Séptimo.- Duración***

*La cesión de las cubiertas municipales se hace por un plazo máximo de 15 años, prorrogable a 25.*

*La integración del Ayuntamiento de Eibar en la Asociación TEK como socio promotor, asumiendo las cuotas no cubiertas por el eventual déficit de socios, tendrá una duración máxima de 8 años.*

*Asimismo, el acuerdo podrá extinguirse de manera anticipada por las siguientes circunstancias:*

- *Mutuo acuerdo de las partes.*
- *El no cumplimiento, por parte de la Asociación, de sus fines constitutivos.*
- *El incumplimiento de cualquiera de las prohibiciones u obligaciones establecidas en este acuerdo.*
- *La disolución o la pérdida de su capacidad de obrar de la Asociación, así como la*

*garapena egiterik edo egiteko eskubiderik ez izatea ere; hori guztia elkartea iraungi aurretik sortutako betebeharrak betetzeari utzi gabe.*

*Edozein arrazoirengatik lagapena amaitzen denean, TEK Elkarteak ez du eskubiderik izango Udaletik datorren inolako konpentsazio edo kalte-ordainik jasotzeko, salbu eta Udalak bere gain hartutako betebeharrak betetzeko aurreikusitakoa, Bosgarren atalean aurreikusitakoarekin bat kontsumitzaile izatea aukeratu badu.”*

*imposibilidad de hecho o de derecho de desarrollar su actividad constitutiva, todo ello sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones que hubiera generado con anterioridad a la extinción.*

*A la finalización de la cesión por cualquier causa, la Asociación TEK no tendrá derecho a compensación o indemnización alguna proveniente del Ayuntamiento, salvo lo previsto en relación con el cumplimiento de las obligaciones asumidas por el Ayuntamiento si hubiere optado por la condición de consumidor conforme a lo previsto en el apartado Quinto.”*

**BIGARRENA.-** Alkate jaunari eskuordetzea eta ahalmena ematea aurreko erabaki hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak formalizatzeko eta sinatzeko, bai eta hori betearazteko behar diren gai guztiak ebazteko eta osatzeko ere.

**SEGUNDO.-** Delegar y facultar al Sr. Alcalde para formalizar y firmar cuantos documentos sean necesarios para la materialización de dicho acuerdo; así como para resolver y complementarlo en todas las cuestiones que su ejecución requiera.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau hartu dela jakinaraztea Eibarko Tokiko Energia Komunitatea-TEK Eibar Elkarteari, egoitza Eibarren duenari.

**TERCERO.-** Notificar la adopción del presente acuerdo a la Asociación Eibarko Tokiko Energia Komunitatea - TEK Eibar, con sede en Eibar.

**6. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza osatzen duten Gipuzkoako administrazioen esparruan, bidaiarien**

**6. Modificación del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas**

**errepideko garraio zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketa. AL9000-000103/202**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

Idazkaritzak egindako txostena aztertu da, 2024ko otsailaren 14koa.

Kontuan hartuta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d), 70.2 eta 49. artikuluetan eta Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 196. artikuluan xedatutakoa.

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko otsailaren 19ko Erakunde, Lege eta Lurralde Gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena.

**viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. AL9000-000103/2023**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

Visto el informe de Secretaría, emitido el 14 de febrero de 2024.

Considerando lo dispuesto en los artículos 22.2.d), 70.2 y 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, y en los artículos 196 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales de 19 de febrero de 2024.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA.-** Hasierako onarpena ematea Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketari.

- **Zioen azalpena**:

V. ataleko 2. eta 4. parrafoetan "mendekotasuna" gehitzea:

*"Ildo horretan, erregelamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sentsoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen."*

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

## ACUERDO

**PRIMERO.-** Aprobar inicialmente la modificación del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa en los siguientes términos:

- **Exposición de motivos.** Añadir "dependencia" en los párrafos 2 y 4 del apartado V:

*"En este sentido, el Reglamento establece que las Administraciones titulares del servicio público de transporte deben utilizar todas las herramientas a su alcance para garantizar la accesibilidad y la movilidad de las personas, garantizando, así, el uso y disfrute del servicio de transporte de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial de carácter temporal o permanente. La accesibilidad se configura como elemento clave e indispensable para la plena efectividad de los derechos de las personas con discapacidad y dependencia".*

- **Zioen azalpena**:

V. Atala. Jarraian aipatuko den paragrafo hau honela idatzita geratuko da:

*"Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonek gastu gehigarria izaten dutela jakinda –zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute–, berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileentzat, Mugi txartela ordaintzen/baliozkotzen dutenean, eta pertsona horiek doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positiboko neurri honen bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira."*

- "12. artikulua. Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea.

*Mugikortasun murriztua duten bidaiariek gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaian ibilgailuko zer espazio okupatu behar duten alde batera utzita.*

*Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonek, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean, eurek aukeratutako pertsona baten laguntza izan*

- **Exposición de motivos.**

Apartado V. El párrafo que se menciona a continuación quedaría redactado tal como sigue:

*"Las Administraciones titulares del servicio, conscientes del gasto adicional que afrontan las personas con movilidad reducida obligadas en muchas ocasiones a viajar acompañadas, establecen un régimen tarifario específico para las personas acompañantes de las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi, que podrán viajar de forma gratuita. Mediante esta medida de acción positiva se pretende compensar las desventajas económicas de las personas con falta de autonomía para acceder solas al transporte público."*

- "Artículo 12. Régimen tarifario de las personas viajeras con movilidad reducida.

*Las personas viajeras con movilidad reducida estarán sometidas al mismo régimen tarifario que el resto de las personas viajeras, con independencia del espacio del vehículo que requieran ocupar durante el transporte.*

*No obstante, lo anterior, las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi podrán ir acompañadas por otra persona de su*

*dezakete, beraien segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai dena; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du eta, ahal bada, haien ondoan eseriko da.*

*Hirugarren baten laguntza-beharrari buruzko desadostasunen bat izanez gero, gidarien irizpidea nagusituko da "in situ", eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero."*

- "40. artikulua. Tiketa emateko betebeharra.

*Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, baita doan bidaiatzen dutenei ere, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren."*

- "44. artikulua. Baliozko garraio-titulua aldean eramateko betebeharra.

*Garraio tituluak, hala bada kasua, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.*

*Haurrek, sei urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, eta hala bada kasua, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, Erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.*

Bidaiari guztiek, ibilgailuan sartzen diren unetik bertatik, baliozko garraio-titulu bat

*elección capaz de prestarles la asistencia necesaria para garantizar su seguridad y comodidad, que será transportada de forma gratuita, y de ser viable, se sentará a su lado.*

*En caso de divergencia sobre la necesidad de asistencia de un tercero, prevalecerá "in situ" el criterio del personal de conducción, sin perjuicio de la devolución del importe del viaje una vez acreditada convenientemente aquella circunstancia."*

- "Artículo 40. Obligación de emitir billete.

*Las empresas operadoras de transportes están obligadas a la emisión del correspondiente billete en papel a las personas usuarias que abonen el servicio en efectivo, y a las que viajan de forma gratuita, a efectos de cómputo de plaza y de la cobertura de los seguros obligatorios."*

- "Artículo 44. Obligación de portar el título de transporte válido.

*El título de transporte, en su caso, debidamente validado, posibilita la utilización del servicio.*

*Las personas a partir de los seis años de edad deberán viajar con título de transporte válido, y en su caso debidamente validado, en las mismas condiciones que las personas adultas, conforme a lo establecido en el artículo 17 del presente Reglamento.*

*Toda persona viajera deberá estar provista, desde el embarque, de un título*

eduki beharko dute. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

*de transporte válido que deberá someter al control de entrada en el vehículo, de acuerdo con sus características, y conservar, sin deteriorarlo, a disposición de los empleados de las empresas operadoras de transportes o de los agentes de inspección que puedan requerir su exhibición, durante todo el trayecto hasta descender del vehículo en la parada de destino.*

*Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluek eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.*

*En el caso de que las propias características del título permitan su uso plural, este deberá quedar siempre en posesión de la última persona que descienda del vehículo. Los referidos títulos, tienen el carácter de título al portador o portadora, por lo que pueden ser utilizados de forma indistinta por cualquier persona.*

*Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonek –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela–, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileek, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean.*

*Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonek* doaneko tiketa *izenekoa eramatea, plazak zenbatzearren eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren.”*

*Sólo podrán viajar gratuitamente los menores, las personas autorizadas que porten el título acreditativo de esta condición y las personas acompañantes de las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi.*

*Será obligatorio portar el denominado billete gratuito por parte de las personas referidas en el párrafo anterior a efectos de cómputo de plazas y de la cobertura de los seguros obligatorios.”*

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean uztea 30 egunez, egokitzat jotzen diren

**SEGUNDO.-** Someter el expediente a información pública por un plazo de 30

oharrak aurkez daitezen. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da iragarki-taulan nahiz udaletxearen web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

días para la formulación de las observaciones que se estimen oportunas. El trámite de información pública se dará a conocer mediante anuncio en el tablón de edictos y página web del Ayuntamiento, y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**HIRUGARRENA.-** Alegaziorik aurkeztu ezean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da**.**

**TERCERO.-** De no presentarse alegaciones, el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa se considerará aprobado definitivamente sin necesidad de un nuevo acuerdo expreso, si bien para su entrada en vigor deberá publicarse el texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**7. “Asociación de Ayuda en Carretera DYA Gipuzkoa” elkarteari egindako lokal-lagapena (Pagaegi, 5, behea) iraungitzea. ID0001-000130/2024**

**7. Extinción de la cesión a la Asociación de Ayuda en Carretera DYA Gipuzkoa del local sito en Pagaegi, 5 bajo. ID0001-000130/2024**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENTZIOAK: 6 - Eibarko EH Bildu.

ABSTENCIONES: 6 - Eibarko EH Bildu.(6),

Legezko gehiengo osoa lortuta, onartu egin da.

Alcanzada mayoría absoluta legal, queda aprobado.

Ikusita Udal Idazkariak egindako nahitaezko txostena, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 172. artikuluan ezarritakoarekin bat eginez.

Vista el preceptivo informe emitido por parte del Secretario Municipal, realizado de conformidad con lo previsto en el artículo 172 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales

Ondorioz, kontuan hartuta 2024ko otsailaren 19ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordearen aldeko irizpena.

En consecuencia, considerando el dictamen favorable Comisión de Trabajo de de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio de 19 de febrero de 2024.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**AKORDIOA**

**ACUERDO**

**AURRENA.-** Amaiera ematea Asociación de Ayuda en Carretera DYA Gipuzkoa elkartearen eskuetan utzitako Pagaegi 5 zenbakiko behean dagoen udal-titulartasuneko lokalaren doako lagapenari, elkarteak berak hala eskatuta.

**PRIMERO**.- Extinguir la cesión gratuita del local de titularidad municipal sito en la calle Pagaegi, 5 bajo a la Asociación de Ayuda en Carretera DYA Gipuzkoa, a petición de la misma.

**BIGARRENA.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hamabost egunez, alegazioak aurkez daitezen. Epe hori amaitutakoan,

**SEGUNDO.-** Someter el expediente a información pública por espacio de quince días para la presentación de alegaciones,

alegazioaren bat aurkezten bada, osoko bilkurak ebatziko du; bestela, behin betiko onartutzat joko da aurreko puntuan jasotako azkentzea.

a cuyo término, caso de presentarse alguna alegación, se resolverá sobre la misma por este Pleno; en caso contrario, se dará por definitivamente aprobada la extinción recogida en el punto anterior.

**HIRUGARRENA.-** Dagozkion gainerako izapideak betetzea, eta alkate-udalburuari baimena ematea akordio hau erabat eraginkorra izan dadin behar diren agiriak sinatzeko.

**TERCERO.-** Dar cumplimiento al resto de los trámites procedentes, autorizando al Sr. Alcalde-Presidente para la firma de los documentos necesarios para la plena efectividad del presente acuerdo.

**GAI ZERRENDATIK KANPO:**

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA:**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta urgentziazko aitorpena egin ondoren, aho batez berretsia, honako gai hau aztertu da:

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasan a tratar el siguiente asunto:

**San Andrés Fundazio Publikoko kidea izendatzea. ID0001-000178/2024**

**Designación de vocal en la Fundación Pública San Andrés. ID0001-000178/2024**

Eibarko EH Bildu udal-taldearen koordinatzailearen proposamena, San Andres Fundazio Publikoaren Batzarrerako kidea izendatzeko: Arantzazu Mata Eguiguren andrea izendatzea, Gorka Errasti Bernedo jaunaren ordez.

Propuesta de la Coordinadora del grupo municipal Eibarko EH Bildu sobre designación de vocal en la Junta de la Fundación Pública San Andrés: Designar a Dña. Arantzazu Mata Eguiguren en sustitución de D. Gorka Errasti Bernedo.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

KONTRAKO BOTOAK: (0).

ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 21 - PSE-EE (PSOE) (8), Eibarko EH Bildu (6), Eibarko EAJ-PNV (6), ELKARREKIN PODEMOS, EZKER ANITZA - IU, ALIANZA VERDE (1).

VOTOS EN CONTRA: (0).

ABSTENCIONES: (0).

**8. Galderak eta erreguak**

Arazo tekniko bat egon denez, atal hau grabatzeke geratu da. Horregatik, esandakoak transkribatu dira:

- **Fernández Pejenaute andreak** gogorarazi du joan den urteko uztaileko osoko bilkuran aho batez onartu zela Eusko Jaurlaritzari eskatzea Eibar etxebizitza eremu tentsionatu legez deklaratzeko.

  Era berean, adierazi du, joan den urteko urrian ere, osoko bilkura honetan gai honen egoerari buruz galdetu zuela, eta alkate-udalburuak erantzun ziola Eusko Jaurlaritzako dagokion sailarekin hizketan ari zirela.

**8. Ruegos y preguntas.**

Debido a un problema técnico, no se ha realizado la grabación de este punto. Por tanto, se procede a la transcripción de las intervenciones:

- La **Sra. Fernández Pejenaute** recuerda que en la sesión plenaria correspondiente al mes de julio del pasado año se aprobó por unanimidad solicitar al Gobierno Vasco la declaración de Eibar como zona tensionada en vivienda.

  Asimismo, indica que, posteriormente, en octubre también del pasado año, preguntó en este pleno sobre la situación de este asunto, respondiéndole el Sr. Alcalde-Presidente que estaban en conversaciones con el departamento correspondiente del Gobierno Vasco.

Era berean, 2023ko abenduan, beste galdera bat egin zuen, eta erantzun zitzaion gai hori martxan zegoela eta Hirigintzako Batzorde Ahokularian emango zela gaiari dagokion informazioa.

Del mismo modo, en diciembre, de 2023 realizó una nueva pregunta y se le contestó que este asunto seguía en marcha y que se proporcionaría la información correspondiente en la Comisión Asesora de Urbanismo.

Aurrekari horiekin, adierazi du komunikabideen bidez jakin duela hilabete honetan bertan Errenteria izan dela Eusko Jaurlaritzari etxebizitza eremu tentsionatu deklaratzeko eskatu dion Gipuzkoako lehen udalerria. Bere ustez, egoera hau ez dago ulertzerik; izan ere, Eibarko Udalak eskaera egin ez badu, ez da kontuan hartu gure hiriak duen arazo handienetako bat ez ezik, baina ez hori bakarrik, baizik eta engainatu egin dituztela, deklarazio edo adierazpen hori eskatu zutela sinetsaraziz. engainatu ere egin zaie, aitorpen hori eskatu zela sinetsaraziz.

Con estos antecedentes, señala que ha tenido conocimiento por los medios de comunicación que este mismo mes Errenteria es el primer municipio gipuzcoano que ha solicitado al Gobierno Vasco ser declarado zona tensionada en vivienda. A su entender, esta situación no se explica, puesto que, si el Ayuntamiento de Eibar no ha realizado la solicitud, no sólo no se tiene en cuenta uno de los mayores problemas de nuestra ciudad, si no que se les ha engañado haciéndoles creer que sí se había solicitado tal declaración.

Horren ondorioz, jakin nahi du eskaera hori zer puntutan aurkitzen den.

En consecuencia, desea saber en qué punto se encuentra dicha solicitud.

- **Mata Egiguren andreak** adierazi du martxoaren 8ko adierazpenean faltan bota dutela zaintza-eskubide kolektiboaren inguruko hausnarketa, alegia, erdigunean jartzea zaintza sistema publiko eta komunitario baten beharra. Hortaz,

- La **Sra. Mata Egiguren** afirma que en la declaración con motivo del 8 de marzo su grupo municipal echó en falta una reflexión sobre el derecho colectivo al cuidado, es decir, situar en una posición central la necesidad de un sistema de

azaroan egin zen lehen greba feministan, gaur egungo zaintza-sistema krisian dagoela eta krisi horrek aurpegi ugari dituela ohartarazi zuten mugimendu feministako kideek.

cuidados público y comunitario. Así, durante la primera huelga feminista celebrada el pasado mes de noviembre, miembros del movimiento feminista advirtieron que el actual sistema de cuidados se encuentra en crisis y que esta crisis presenta múltiples caras.

Momentu horretan herri-akordio bat mahaigaineratu zen, eta instituzioak dira herri-akordio hori bideratzeko ardura dutenak, gure herriaren zein herrialdearen errealitatera moldatzeko eta hori aurrera eramateko baliabideak jartzea.

En ese momento se planteó un acuerdo de país, y son las instituciones las responsables de encauzarlo, así como de adaptarlo y llevarlo a cabo según la realidad de nuestro pueblo y país, poniendo los medios necesarios para ello.

Adierazten du EH Bilduk baduela bere plana, eta, horren ondorioz, Udal Gobernuari eskatzen dio lehen pausoak ematen hastea Zaintza Mahaia sortuz.

Manifiesta que EH Bildu ya cuenta con su plan y, en consecuencia, solicita al gobierno municipal que comience a dar los primeros pasos con la creación de una Mesa de Cuidados.

- **Alberdi Arriola andreak** esan du, duela hogei egun, lau urte bete direla Zaldibarko zabortegia amildu eta Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran beharginak desagertu zirenetik.
  Alde horretatik, dio, ertz asko dituen afera honetan, Ingurumenaren kontrako ustezko delitua ikertzeko auzibideak lau urte daramatza instrukzio fasean.

- La **Sra. Alberdi Arriola** comenta que hace veinte días se cumplieron cuatro años del desprendimiento del vertedero de Zaldibar y de la desaparición de los trabajadores Alberto Sololuze y Joaquín Beltrán.
  En este sentido, afirma que, en esta cuestión que tiene muchas aristas, la investigación del presunto delito contra el Medio Ambiente lleva cuatro años en fase

Esaten du badakitela Bizkaiko Auzitegiak auzitik kanporatu zituela akusazio bezala ari ziren lau udalerriak.

de instrucción. Además, les consta que la Audiencia de Bizkaia expulsó de la causa a los cuatro municipios que ejercían la acusación.

Hori guztia kontuan hartuta, esaten du jakin nahi duela ordutik hona Udal guztien artean gaiari jarraipena egiteko koordinazio-mahairik egon den, informaziorik dagoen edo informaziorik lor daitekeen.

Teniendo todo esto en cuenta, desea saber si desde entonces ha existido alguna mesa de coordinación para realizar un seguimiento del tema entre todos los ayuntamientos, si se dispone de algún tipo de información o si puede conseguir información.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eskatutako ikerketa batek oharteman du Zaldibarko zabortegia berriro erortzeko arriskuan dagoela, zabortegiaren oraingo egonkortasuna 2020an zuena baino okerragoa delako. Gainera, ondorioztatu da ura kutsatzeko arrisku handia dagoela.

Igualmente, un estudio encargado por el Gobierno Vasco advierte del riesgo de que el vertedero de Zaldibar vuelva a derrumbarse, ya que su estabilidad actual es peor que la que tenía en 2020. Además, se ha llegado a la conclusión de que existe un alto riesgo de contaminación del agua.

Erortzeko arriskua benetakoa dela kontuan hartuta, galdetzen du ea existitzen den emergentziazko planik.

Teniendo en cuenta que el riesgo de derrumbe es real, pregunta si existe un plan de emergencia.

Azkenik galdetu du ea egiten den uraren zein airearen kalitatearen inguruko azterketa espezifikorik eta zer maiztasunez. Ezezko kasuan, bere udal-taldeak azterketak egiteko maiztasuna finkatzea eta emaitzak herritarrekin partekatzea eskatzen du.

Por último, pregunta si se realiza un estudio específico de la calidad del agua y del aire y con qué frecuencia. En caso negativo, su grupo municipal solicita que se fije la frecuencia de realización de los estudios y que los resultados sean compartidos con la ciudadanía.

**Alkate-udalburuak** erantzun du gogoratu behar dela zabortegia Zaldibarko udalerrian dagoela eta, beraz, horri buruzko ezer ez dagokiola Udal honi.

El **Sr. Alcalde-Presidente** responde que hay que recordar que el vertedero en cuestión se encuentra en terreno del municipio de Zaldibar y que, por tanto, nada relativo al mismo es competencia de este Ayuntamiento.

Era berean, gogorarazi du 2020ko otsailean zabortegia erori zenetik Eusko Jaurlaritzak hartu duela bere gain egoeraren kontrola. Udal honek ez duenez hondakindegi horri buruzko inolako eskumenik, beraz, bere ustez, organo eskuduna behar diren neurriak hartzen egongo da erorketa oro sahiets dadin (informazio horren egiazkotasuna ez du ezagutzen, ez baitu horri buruzko jakinarazpen ofizialik jaso) eta une bakoitzeko egoeraren arabera egokiak eta beharrezkoak iruditzen zaizkion airearen eta uraren kontrolak egiten ariko da.

Igualmente, recuerda que, desde el derrumbe del vertedero en febrero de 2020, ha sido el Gobierno Vasco el que ha asumido el control de la situación. Toda vez que este Ayuntamiento no es competente en nada relativo a dicho vertedero, entiende que el órgano competente estará adoptando las medidas necesarias y correspondientes para evitar cualquier ulterior derrumbe (información cuya veracidad afirma desconocer, dado que no se ha recibido comunicación oficial alguna al respecto) y estará realizando los controles del aire y del agua que considere oportunos y necesarios según las circunstancias de cada momento.

Horregatik, bere ustez, gai horren inguruko edozein gauza jakin nahi izanez gero, galderak organo eskudunari planteatu beharko litzaizkioke.

Es por ello que entiende que, en caso de querer conocer cualquier cuestión al respecto, las preguntas deberán plantearse ante el órgano competente.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta arratsaldeko zortziak bost gutxi izanik, **Alkate-udalburu jaunak** amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Nagusi naizen honek, horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas cincuenta y cinco minutos, el **Sr. Alcalde-Presidente** levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO

Jon Iraola Iriondo

Juan Agustín Villafranca Bellido